

*Kaixo, neska-mutilak!*

*Zer moduz gelan? Denok elkar ezagutu dugu eta zelako ezberdinak garen, ezta? Hori ona da, denok ezberdinak eta denok bereziak!*

*Baina ez pentsatu, oraíndik agertuko dira lagun gehiago ere, eta lagunekin oso ondo pasatuko dugu!*

*Zuetako batzuk hasi zarete irakurtzen eta idazten, zelako emozionantea den ulertzea idatzita dagoena! Dena dela, ez badakizue ongi irakurtzen, zuek lasai, hemen letrak ikasiko dituzue eta baita gelako materialaren izenak ere.*

*Kartelak ere badaude. Horiek irakurri ondoren, material guztia aprobetxa dezakezue gela apaintzeko.*

*Kontatuko didazue zelan antolatzen duzuen lana eta gela nola geratzen den!*

*Laster arte!*

